

I. eranskina

GLOBO-BIDAIAREN ZOZKETAREN OINARRIAK

1. Erakunde antolatzailea

Kultura Communication Desarrollo - KCD GGKE (aurrerantzean, erakunde antolatzailea edo KCD GGKE, aukeran) EAEko Elkartearen Erregistro Orokorrean dago inskribatuta —IFZ: G-95550943; helbidea: Beurko Zaharra, 3, 38. pabilioia, 12. bulegoa, Barakaldo (Bizkaia) 48902, Espainia—, eta globo-bidaia bat zozkatuko du.

2. Parte-hartzaileak

Honako pertsona fisiko hauek hartu ahal izango dute parte zozketan: Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren 14. Nazioarteko Jaialdian boto-inkestak edo institutueta bidalitakoak betetzen dituztenek, baldin eta baimena egiaztatzeko laukia —«*Globo-bidaiaren zozketan parte hartu nahi dut eta, horretarako, irakurri eta onartu ditut zozketaren lege-oinarriak*» idatzita duena— markatzen badute eta euren helbide elektronikoa idazten badute.

Zozketan parte hartzea doakoa izango da eta oinarri hauetan ezarritakoa betetzen duten parte-hartzaile guztiei irekita egongo da.

3. Prozedura

Zozketan parte hartzeko epea inkestak bidaltzen diren egunean hasi eta jaialdiaren itxierako galaren egunean amaituko da. Egun horretan jasotzen diren mezu elektronikoak ez dira aintzat hartuko.

4. Irabazleak aukeratzea

Parte hartzeko epea amaitutakoan, jaialdiaren itxierako galaren egunean, zozketa bat egingo da jasotako baliozko partaidetza guztien artean. Partaidetza bakoitzari zenbaki bat esleituko zaio, eta irabazlea ausaz izendatuko da, zenbaki guztien zerrendatik bat hartuta.

Zozketa egin eta 15 eguneko epearen barruan jakinaraziko zaio irabazleari saria irabazi duela, zozketan parte hartzean emandako helbide elektronikora mezua bidalita.

Irabazleak 15 eguneko epean saria erreklamatzeko ez badu, saria hutsik geratuko da, zozketa ez baita berriz egingo.

Erakunde antolatzaileak eskubidea izango du parte hartzeko epea edo irabazleari sariaren berri emateko datak aldatzeko, horretarako halabeharrezko arrazoiak baditu edo oinarriotan ezarritako

datak eta/edo epeak betetzerik ez badu. Kasu horretan, aldaketak behar besteko aurrerapenez ezagutaraziko ditu.

5. Saria

Bi lagunentzako globo-bidaia baterako txartela —340 euro balio duena— zozkatuko da.

Saria ezin da diruarekin edo inolako ordainarekin trukatu.

6. Saria onartu eta ematea

Irabazleak sariaren berri jasotzen duenean 15 egun naturaleko epea izango du saria onartzen duela adierazteko. Horretarako, emango zaizkion jarraibideak bete beharko ditu. Epea igarotakoan irabazleak saria onartzen duela egiaztatzen ez badu, irabazle-izaera galduko du, eta saria hutsik geratuko da.

Irabazleak saria onartzen badu, berriz, erakunde antolatzaileak sariaz gozatzeko behar dituen elementu guztiak bidaliko dizkio 15 naturaleko epean, zozketa irabazi zuela jakinarazi zitzaionetik zenbatzen hasita.

7. Datu pertsonalak

Erakunde antolatzaileak zozketako parte-hartzaileek ematen dituzten datu pertsonalak tratatuko ditu, haien parte-hartzea kudeatzeko eta, haiek adierazitako kontaktu-bideak erabiliz, zozketari lotutako jakinarazpenak bidaltzeko. Zozketan parte hartzeak eragindako kontratu-harremana da tratamenduaren oinarria.

Zozketaren epealdia amaitutakoan, suntsitu egingo dira datuak, eta enpresa antolatzaileak ezin izango ditu erabili zozketarekin zerikusirik ez duten gaietarako.

Zozketako parte-hartzaileak eskubidea izango du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, aurkartzeko eta haien tratamendua mugatzeko. Eskubide horiek erabiltzeko, idatzizko jakinarazpena bidali beharko dio Kultura Communication Desarrollo – KCD GGKEri, oinarri hauen hasieran adierazitako helbidera, edo administracion@kcd-ongd.org helbide elektronikora. Horrez gain, erreklamazioa aurkeztu ahal izango du kontrol-agintaritzaren eskudunaren aurrean. Bi kasuetan identifikazio-agiri ofizialaren kopia erantsi beharko du.

8. Iruzurrezko partaidetzak eta parte-hartzaileak deskalifikatzeko beste zenbait arrazoi

Erakunde antolatzaileak edo zozketarekin lotura profesionala duen beste edozein erakundek anomaliaren bat aurkitzen badu, edo susmatzen badu parte-hartzaile bat zozketaren funtzionamendu normala oztokatzen ari dela edo beste modu batean oinarriak hausten ari dela, alde bakarrez jardun eta zozketatik kanpo utzi ahal izango du parte-hartzaile hori.

Era berean, erakunde antolatzaileak aukera izango du edozein parte-hartzaile zozketatik kanpo uzteko, baldin eta parte-hartzaile horrek KCD GGKEren webgunea, sare sozialetako profila edo haren titulartasuneko beste webgune bat erabiltzen badu legeria aplikagarriaren, moralaren eta gizarteak oro har onartzen dituen ohitura onen, ordena publikoaren edo oinarri hauen aurkako iruzkinak edo edukiak argitaratzeko, edo eduki horiek difamaziozkoak, iraingarriak, laidogarriak, arrazistak, lizunak, mehatxatzaileak edo diskriminatzaileak badira.

9. Baldintza orokorrak

Oinarriotan ezarritakoarekin bat, zozketan parte hartzen duenak berariaz onartzen ditu oinarriak, baita erakunde antolatzailearen irizpidea ere, oinarrien interpretazioari eta sor litekeen edozein gorabeheraren ebazpenari dagokienez. Era berean, zozketaren emaitza apelaezina izango da.

Erakunde antolatzaileak eskubidea izango du zozketa honen baldintzak aldatu eta antzeko beste batzuk finkatzeko, behar izanez gero.

Espainiako legeria du gidari zozketa honek, eta Barakaldoko auzitegi eta epaitegietara joko dute parte-hartzaileek eta erakunde antolatzaileak, baldin eta zozketaren inguruan auziren bat sortzen bada. Alderdiek berariaz uko egiten diote beste zeinahi foruri, legeak besteren bat agindu ezean.